

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## ■ ASTIGARRAGA ODOLA

### Odol emaileek hitzordua, bihar

Astigarragan odola emateko urteko bigarren hitzordua biharko jarri da. Anbulatorioan egin ahal izango da, 18:30-20:30. ||

## ■ HERNANI AMHER

### Ongietorria, bizilagun berriei

Amher elkarteak ongiatorria eman nahi die heraniar berriei. Latsunbeto 42an daukan lokalean jarri du hitzordua gaur, 16:00etan. Herriari buruzko informazioa eman eta ibilalditxo egingo dute gero. ||

## ■ HERNANI UDALA

### Gaur zozketatuko dira etxebizitzak

Udal jabetzakoak diren zazpi etxebizitza alokairu sozialean esleitzeko zozketa gaur egingo da, 13:30etan udaletxeko Pleno aretoan. Gazteen eta adinekoen atalean onartutako zerrenda [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) webgunean ikusi daiteke. ||

## ■ HERNANI TTARLA

### Matrikula egunak, gaur eta bihar

Datorren ikasturtean Ttarla dantza taldean ibili nahi dutenek matrikula egin behar dute. Gaur eta bihar izango da aukera, Biterin, 17:00etatik 18:00etara. ||

## ■ HERNANI AKELARREA

### Entsaioa gaur, akelarre txikiak

Ekainaren 23ko akelarre txiki-rako entsaioa egingo da gaur, 18:00etan Atsegindegin. ||

## ■ ASTIGARRAGA AUKA

### Musikarekin, jolas

Auka Joko erraldoi batean hartuko dute parte gaur musika eskolako haurrek, 17:00etan Foru Plazan, musika edukia lantzeko. ||

## ■ HERNANI ERABAKI HERNANI

# Aurrekontuen gainean erabakitzeko, azken astea

Azken bilera egingo dira gaur, 19:00etan Kaxkoan (udaletxean); etzi, 19:00etan Florida-Etxeberrin; eta ostiralean, 19:30etan, Sorgintxulon. Proposamenak hilaren 17ra arte jasoko dira.

ERABAKI Hernani aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren aurreneko fasea bukatzen da. Maiatzaren 30ean martxan jarri zenetik, 6 bilera egin ditu Udalak auzoka, Karabel, Lizeaga, Zikuñaga, Portu, Antziola eta Latsunbe Berrin, eta azken hirurak egingo ditu orain.

Gaur, 19:00etan udaletxean bilduko da Kaxkoko bizilagunekin, baina «herriko talde eta eragilei deia luzatu» zaie bertara azaltzeko, «euren eskaerak egin ditzaten. Eurak dira, besteak beste, herriari bizitza ematen laguntzen dutenak».

Hurrengo bilera asteazkenean izango da, 19:00etan Etxeberrin-Floridako auzo elkarteetan, eta azken ostiralean, 19:30etan Sorgintxulon.

Dena den, herritarrek proposamenak egin ditzakete hilaren 17ra arte, herriari jarri diren postontzietan edo interneten: [erabaki.hernani.eus](http://erabaki.hernani.eus). ||



Azken hiru bilera aste honetan egingo dira, Erabaki Hernani parte-hartze prozesuan.

## ■ ASTIGARRAGA-HERNANI GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

# Sagardotegien %45, udako denboraldiari begira

Sagardoa Route izenaren atzean dagoen Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen esanetan, «600.000 lagun ibili dira aurtengo denboraldian». Udarako eskaintza turistikoak dituzte prest, orain.

AURTENGO Txotx denboraldiaren inguruko irakurketa egin du Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak; 59 sagardotegien artean daude, Astigarragako 10 eta Hernaniko 5, besteak beste. Udararako helburuak ere zehaztu ditu.

**Sagardoa Route, erabilgarri**  
Urtarriletik maiatzera «Sagardoa Route sagardotegietan

600.000 lagun ibili» direla azaldu du elkarteak. Hobekuntza nabaritu dute sagardogileek, erreserbak egiteko webgunean esker, «Sagardoa Routek gestionatu dituen %95a webgunearen bidezkoa» izan baita.

Bezeroen perfila eta jatorriari dagokionez, astean zehar «gehiengoa 40-70 urte ingurukoa» dela dio, eta asteburuetan, «18-70» bitartekoa;

«bertakoak» gehienak, eta «turista nazionalak, bigarren bisitariak».

### Botilako sagardoa eta pakete turistikoak, udaran

Udarari begira, berriz, elkarteak gogorarazi du «sagardotegien %45 irekita» dagoela udaran ere, urte osoan bezala, eta, era berean, «sagardo botila merkatuan» dagoela.

Bestalde, «produktu turistikoaren eskaera gorantz» egiten ari dela-eta, «gure jatorria eta historia» ezagutzera ematen dituzten lau esperientzia prestatu dituzte: sagardotegi batean bisita gidatua, Flyschetara irteera, gaztandegira irteera edo Ordiziako merkatura irteera; denak, sagardotegian otordua eginez borobilduta. Informazioa: [sagardoa.eus](http://sagardoa.eus) ||



ezkati

ileapaindegia

Ituregi, 4  
Hernani  
943 55 65 56  
Hartu ordua

COVIRAN

**AINHOA**  
Janaridenda

Nagusia 20, Astigarraga  
943 55 12 93

OGI BERRI  
OKINDEGIA

Rosa Morla

Kale Nagusia, 31  
20115 ASTIGARRAGA  
Tfn: 943 55 41 04 - 618 269 314  
[rmorlaluengo@yahoo.es](mailto:rmorlaluengo@yahoo.es)

**BIKAIN**  
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42  
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani



**GAUR**

Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, eta lainotuta egongo da, orokorrean. Hegoaldean, gubiago. Tarteka euri pixka bat egin dezake, bereziki goizean. **Min.11° / Max.16°**



**BIHAR**

Euria egingo du, batez ere, egunaren aurreneko partean. Ekaitzak ere jo dezake. Arratsaldean atertzeraz egingo du. Ipar-mendebaldeko haizea indartsu ibiliko da hala ere, freskotik. **Min.10° / Max.16°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

## HERNANI TILOS 7 PASA



Lau mailletako 8 finalistak, irabazleak txapela jantzita. Argazki guztiak: www.kronika.eus

Argazkiak:



Argazkia: GORKA IMAZ.

## Esperotakoa, Tilos 7 Pasako finaletan

Iaz galdutako txapela berreskuratu zuen Zubimendik, Ramosekin, eta Urdangarin eta Balerdik errepikatu egin zuten. Tiloseta bete egin zen.

EMOZIO eta afiziorik ez zen falta izan larunbat arratsaldean Tilosetan. Bete egin zen zenbait momentutan frontoia, eta gogor jokatu zuten finalista guztiak Tilos 7 Pasako Txapela jantzeko. Baina, azkenean, sorpresa gutxi izan zen.

Aurreneko mailan, Aiheko Zubimendik iaz galdutako txapela berreskuratu zuen,

oraingoan Endika Ramosekin jokatu; 22-17 irabazi zieten Zabala eta Undari.

Nesken mailan, berriz, Garazi Urdangarin eta Ekhiñe Balerdik bigarrenez jantzi zuten txapela, iaz bezala, berrero ere Urien eta Otaegiri irabazita; oraingoan, 22 eta 13.

Bigarren mailako finalean, partidua berdindua espero zen,

eta azkenean, 22 eta 14, Josu eta Alex gailendu zitzaizkien Legarreta eta Olazabali.

Azken partidua maila herrikoieko finala izan zen, eta beteranoak izan ziren gazteen aurrean nagusi; Bidegain eta Izoategik irabazi zieten 22 eta 16, Garmendia eta Elosegiri.

Sariak banatuta, iluntzean bukatu zuten eguna. ||

## HERNANI GAZTELEKUA

### Udararako egitaraua prest dauka Gaztelekuak, hainbat irteera tarteko

Ekainaren 19ra arte eman daiteke izena, uztaileko irteeratan parte hartu ahal izateko. Ekaina, hilaren 21eko Su Festarekin bukatuko dute.

SAN Joanak iritsi arte makina bat ekintza gehiago egin ahal izango dira Gaztelekuan aste-oro, asteartetik larunbatera; astelehen eta igandetan itxita egoten da. Hain zuzen, San Joanetan ateak itxiko ditu, baina ez aurretik, festa eder bat egin gabe: ekainaren 21ean Gazte Sua! festa egingo da Ave Marian.

Zinta lasterketarekin hasiko dira, 16:30etan; DJ tailerra izango da 17:00etan; aerorunba 18:30etan; merendola 19:30etan; eta sari banaketa 20:00etan. Gainera, arratsalde osoan zehar grafitiak egiteko aukera emango da.

**Uztailean, dozenaka aukera** San Joanetako atsedendia uztailean leian bertan bukatuko da. Hortik aurrera, 12-17

urte bitarteko gazteek astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan izango dute irekita Gaztelekuak. Eta makina bat ekintza, aukeran.

Uztailean leko ongietorri festa, 2ko sukaldaritzak mexikarra tailerra, Hernaniko Jolas Igerilekuetara egingo diren irteerak eta Hernanin barrera egingo den gynkana, doan izango dira, eta 6garren mailakoak ere gonbidatuta egongo dira.

Gainerako irteeretan, batzuetan garraioa edo sarreraren bat ordaindu beharko da, baina deskontuak ere badira. Ekainaren 19an zer egin, berriz, instagram bidez edo Gaztelekuan bozkatu daiteke.

Modu batera edo bestera, irteerarako gurasoen baimen orria sinatuta aurkeztu behar da ekainaren 19a baino lehen. ||

#### EKAINA

- 11-12, Gaztelekuko sarrerako kartelaren diseinua.
- 13, Dardo txapelketa.
- 14, Merienda, Santa Barbaran.
- 15, Masterchef.
- 18-19, Boltsa eta kamiseta tailerra.
- 20, Sukaldaritzak osasuntsua.
- 21, Gazte Sua! festa Ave Marian.

#### UZTAILA

- 1, Uztaileko ongietorri festa.
- 2, Sukaldaritzak mexikarra tailerra.
- 4, Zaratze hondartzara irteera.
- 5, Jolas igerilekura irteera.
- 8-9, Surf ikastaroa Donostian.
- 11, Jolas igerilekura irteera.
- 12, Gynkana Hernanin barrera.
- 15, Paintballera irteera.
- 16, Jolas igerilekura irteera.
- 18, Slatig-era irteera (Iruñeara).
- 19, Zer nahiago?
- 22, Eskalada Santa Barbaran (Kaxkardi).
- 23, Piraguismoa Urumean, (Kaxkardi).
- 25, Piraguismoa Donostian (Kaxkardi).
- 26, Afaria Santa Barbaran.



Haurrak atzo atera ziren danborradan. Argazkiak: www.kronika.eus

## HERNANI MENDEKOSTE JAIK

### San Joanetarako prest, Florida-Etxeberrin

Atzo bukatu ziren Mendekoste jaiak Florida-Etxeberrin. Datozen festak iragarri zituzten, besteak beste, danborrak astintzen. San Joanetarako prest dira! ||

## HERNANI KONTRAKANTXA

### 'Hilerokoa' argitalpena, kalean dago

Kontraktantxa Gaztetxeak Hilerokoa izeneko argitalpena kaleratuko du. Gaur egingo du aurkezpena, 18:00etan, gaztetxean. ||

## ASTIGARRAGA KZ GUNEA

### Dinamizatzailea gaur, KZ Gunean

Gaurkoan KZ Gunean izango da dinamizatzailea, arratsaldeko 16:00etatik 17:45etara. ||

## HERNANI MUSIKA

### Sokak gaur, Milagrosan entzungai

Ikasturte bukaerako kontzertuekin segita, biolin eta txelo ikasleek Milagrosan joko dute gaur, 17:00etan. Bihartik aurrera, kontzertu guztiak 18:30etan Sandiusterrin izango dira. ||

## HERNANI BILGUNE FEMINISTA

### Bilera gaur, koadrilen eguneko Djek

Ekainaren 25 gauerako *pinxada feminista* antolatzen ari da Bilgune Feminista; koadrilaka, bakoitzak 30 minutuz musika jartzea da asmoa. Guztia azaltzeko bilera irekia deitu da gaur, 19:30etan Tllosetan. ||

## HERNANI HERNANI WUKROREKIN

### Eskerrak, Aurki tailerreko ikasleei

Hernani Wukrorekin taldeko kideek eskerrak eman nahi izan dizkiete Aurki Tailerretako ikasleei. Izan ere, haiek egindako lanak erakusgai jarri eta salmentetatik lortutako 505 euro Wukrore bidali ahal izan dituzte, bertako proiektuetan laguntzen jarraitzeko. ||

## IRAGARKI MERKEAK

Aseguruen munduan lan egin nahi duzu? Bidali zure C.V.a: [casoco@mapfre.com](mailto:casoco@mapfre.com) helbide elektronikora.

Galizian villa bat alokagai uztaile eta abuztuan. Deitu: 688 605 452

Almazena salgai Hernaniko Lizeaga auzoan (Peña Otaño atzean). 40 m<sup>2</sup>, 4 m altuera, entreplanta, trastelekua eta bulegoa jarrita. WC ere bai. Deitu: 680 136 066

Itigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak) diruz lagundua

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA